

Lankide agurgarria:

COVID-19k sortu duen egoerak Blackboard Collaborate Ultra bideokonferentzia-tresna intentsiboki erabiltzea eskatu digu, bai irakaskuntzari bai kudeaketari dagokienez. Erabilera intentsibo horrekin batera, askotan, bideokonferentziak grabatu dira, zuzenean ikusi ez duten pertsoneri aukera emateko, edo, besterik gabe, bertan jasotakoa edozein unetan berreskuratzeko.

Grabazio horiek direla eta, UPV/EHUko grabazioak gordetzeko tokia agortzen ari da, eta grabazioak ezabatu behar dira tokia askatzeko. Horregatik, **2021eko maiatzaren 3an, 2021eko otsailaren 1a baino lehen egindako grabazio GUZTIAR ezabatu dira.**

Grabazio hauek sartzen dira:

- eGela (<https://egela.ehu.eus>). Aurtengo ikasturtean egindako grabazioak eta baita aurreko ikasturteetan egindako grabazioak ere. Aurreko ikasturteetako gelak Aginte-panelaren bidez daude eskuragarri (ikusi eGelara sartzean erakusten den hurrengo oharra)



- eGelaPI (<https://egelapi.ehu.eus>)
- "bilerak" zerbitzua (<https://ehu.eus/bilerak>)

2021eko otsailaren 1a baino lehen egindako grabazioak gorde nahi dituztenek deskargatu eta gordegin beharko dituzte, euren ekipo informatikoan edo USB unitate batean adibidez.

Grabazioak gordetzeaz gain partekatu nahi badira, UPV/EHUK erabilgarri izan daitezkeen hainbat zerbitzu ditu:


- Bideoak gorde eta deskargatu ahal izateko, ehuBox<sup>1</sup> zerbitzua erabil daiteke (<https://ehubox.ehu.eus/>), kontuan hartuta gordetako bideoek norberaren konturako dauden 50GB kuotatik kontsumituko direla. Zerbitzu hau fitxategiak biltegitzera eta deskargatzera bideratuta dago, **ez bideoak Internet bidez bistaratzera**, arazoak sor baititzake sare-konexioaren kalitatearen eta une horretan bideoan sartzen den jende-kopuruaren arabera.
- Bideoak gordetzeko eta Internet bidez ikusi ahal izateko, EHUt<sup>b</sup> zerbitzua erabil daiteke (<https://ehutb.ehu.eus/>). Internet bidez bideoak bistaratzera bideratuta dago zerbitzu hau, eta, gainera, bideoa nork ikus dezakeen murrizteko eta haren deskarga saihesteko aukera ematen du<sup>2</sup>. EHUt<sup>b</sup> zerbitzuko alta EAZren bidez kudeatu behar da (15 4400 // cau@ehu.eus).

Bi kasu horietako edozeinetan, grabazioa gorde ondoren, esteka partekatu beharko litzateke, posta bidez bidalita edo eGela/eGelaPIin argitaratuta, ikasleen eskura jartzeko.

Grabazioen argitalpenari buruzko xehetasun gehiago aurki daitezke eCampus-eko web orrian: <https://www.ehu.eus/ecampus/blackboard-collaborate-ultra/grabaciones>

Edozein zalantza edo gorabehera EAZren bidez kudeatu behar da (<https://www.ehu.eus/ikt-tic/eaz-cau-kontaktua-ordutegiak>)

Mila esker zuen laguntzagatik.



Mikel Villamane Gironés  
eCampuseko zuzendaria

<sup>1</sup> <https://www.ehu.eus/group/ikt-tic/ehubox>

<sup>2</sup> <https://ehutb.ehu.eus/help>